

AEA IKUSARAZTEKO ITSASALDIA AMAITU EGIN DA

Ekimenaren bitartez Alboko Esklerosi Amiotrofikoa gizarteratu da

"Belak zabalik AEAREN atzetik" izeneko itsasaldia gaur bertan amaitu da Gipuzkoan, Finisterreko 370 milia eta itzulera ibilbidea burutu ondoren. Azken etaparen bukaera Donostiako portuan programatuta egon arren, ustekabeko ekaitza baten ondorioz Getarian jarri diote amaiera nabigatzaileek eta Donostiara joan dira lurretik. Bertan, gaixotasunak jotako Iñaki Elorriaga getxotarrak eta Unai Basurko itsasgizonak, publikoaren zein agintarien ongietorria jaso dute, Alboko Esklerosi Amiotrofikoa bizi duten egoera ikusarazi eta gaixotasunaren kontrako diru-bilketa egiteko bidaia bukatutzat emanda.

Kantauri itsasoko ertzean nabigatu eta abentura amaitu ondoren, itsasgizonek maiatzaren 26an Bilbotik abiatu proiektuaren emaitza positibotzat jo dute. Ekimen honen bitartez, Espainian 4.000 pertsonak duten sendabiderik gabeko gaixotasun hilgarria erakutsi dute. Gaixotasunaren larritasunari hainbat arazo ere gehitzen zaizkio, esaterako diagnostikoaren konplexutasuna, ikerkuntza bultzatzeko inbertsio eskasa eta gaixoentzako zainketa aringarriak abian jartzeko politika eza.

Hori guztia erakusteko, Iñaki Elorriaga, Unai Basurko eta Kepa Junkera musikaria Finisterre lurmuturreraino nabigatu ziren Pottoka belaontzian. Maiatzaren 30ean ailegatu ziren eta, eguraldi bikainak lagunduta, O Centolo izeneko harri arriskutsua saihesten ertzeratu ahal izan zuten. Lehorretik agurra egin zieten gaita-doinuez eta Kepa Junkerak erantzun zuen trikitixa erritmoez jotzen. Horrela bukatu zen bidaiaren lehenengo zatia eta, Iñaki Elorriagaren hitzetan "giza-esperientzia harrigarria" izan zena. Horren eskutik, "asko ikasi eta gozatzeko aukera izan dut" eta, nahiz eta itsasaldia berarentzat erronka handia izan, zorionez dena ondo irten da, inolako arazorik gabe.

Muroseko (A Coruña) herrira ailegatu zirenetik nabigatzaileek laguntza handia jaso zuten AEAREN gaixoen elkarten zein, agintarien eta komunikabideen aldetik, proiektuan parte hartzeko gogo handia erakutsi dutela. Egun batzuk atsedena hartzen eman eta gero, itzulera hasi zen A Coruñatik eta, ondoren, Avilesen, Santanderren eta Getxon geldialdiak egin zuten, Donostiara heldu baino lehenago. Itzulera bidaiari hainbat ekimenetan parte hartu dute, adibidez, hitzaldi pedagogikoetan (horietako batzuk tokiko ikasleei zuzenduta) eta gaixoekin eginiko topaketatan. Horiek egiteko, AGAELA (Galizia), ELA Principado de Asturias, CANELA (Kantabria) eta ADELA-Euskal Herria elkarten laguntza izan dute eta, baita tokiko agintarien eta dantza eta musika talderenak.

Diru bilketa

Gaixotasuna ikusarazteaz gain, proiektu honen bitartez ADELA-Euskal Herria elkartearen gaixotasunaren kontrako borroka finantziatzeko dirua bildu nahi da. Egun arte, 25.000 € inguru bildu dira baina Elorriagak dioenez, "badago asko egiteke" gaixoen erlojupeko borroka honetan. Oraindik erronka askori egin behar zaie aurre, esaterako "ikerkuntza eta zainketa aringarrietarako inbertsio eskasa eta osasun-egitura egokiaren sorkuntza". Proiektua bultzatu nahi duten guztiek dohaintzak egiteko aukera dute honako kontu-zenbaki honen bitartez: ES32-2100-2258-11-0200477615 (Caixa Bank). Aurrera darrai, beraz, gaixotasunaren kontrako borroka eta ekainaren 21ean AEAREN Nazioarteko Eguna ospatuko da Donostian eta Getxon, besteak beste, eta hori dela, argi berdeak piztuko dira zenbait eraikinetan.

OHARRA: Ekimen honi buruzko informazioa behar baduzue, gurekin jar zaitezke harremanetan traslaelaenvela2018@gmail.com e-postaren edota 688 876 703 telefonoaren bitartez.